



ALEA

arabako ~~abdi~~zaria

pasarteak

EUSKARA ETA KULTURA HERRIAREN GEROA





ALEA

218

2019-12-03 ASTEARTEA

AZALEKO IRUDIA:
JON GIL.

ARABAKO ALEA KOMUNIKAZIO TALDEA S.L.

Eskola kalea 10, 7.bulegoa
01001 Gasteiz (ARABA)
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus
Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus
Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 15.000 ale



Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Testuak

Iban Zaldúa
Karmele Jaio
Beñat Goitia
Katixa Agirre
Mikel Ayllon
Elisa Rueda
Edu Zelaieta Anta

Ilustrazioak

Jon Gil

Bultzatzaileak



berria goiena

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan. Informazio gehiago:
www.alea.eus/harpidetzak


Laguntzaileak











Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



artepan



Aurkibidea

 Gurea, zurea, berea , Aritz Martinez de Luna.	5
 Eskola segregazioa , Iban Zaldua.	6
 Hitzen distira , Karmele Jaio.	10
 Iluntze bat Gasteizen , Beñat Goitia.	14
 Txoriei beha , Katixa Agirre.	20
 Biharamunean , Mikel Ayllon.	24
 Eguna egunekoentzat eta gaua gauekoentzat , Elisa Rueda.	28
 Hezur-haragizko inzialak , Edu Zelaieta.	32

Gurea, zurea, berea

Aritz Martinez de Luna

Araban *bagare* kantatzen du abesti zaharrak. Tamalez, aspaldi utzi genion Araban *bagare* izateari. Badira zenbait hamarkada denboraren hautsak gure lurraldeko arbasoen hizkuntza estalirik utzi zuela. Paper zimurtu artean idatziz jasoa, ahanzturan galdua eta zenbait belaunalditako hiztunentzat ezezaguna. Hori zen euskara Arabako eremu gehienetan.

Egun, Araban bagara. Itxuraberrituak, berpiztuak, zenbaiten ustez artifizialak ere batzuetan, eta norberak nahi duen ezaugarriaz jantzita, baina azken finean, bagara. Araban euskaldunak gara, eta gero eta euskaldunagoak gainera.

Guziok gara eskualdun, guziok anaiak gara jarraitzen du abestiak. Eta honetan bai, duela mende erdi Bittor Kapanagak idatzitakoak inoiz baino biziago egoten jarraitzen du. Baliteke abestiaren egileari *guziok* adiera horrek gaur gaurkoz biltzen dituen kolore, itxura eta forma guztiak zeintzuk lirakeen esango bagenio, bekokia zimurtuta egingo lukeela keinu.

Hala da, baina. Arabako euskara aberatsa, koloretsua, anitza eta bizia da. Euskara etxetik jantzita dakartenak izango dira batzuk, inguruko lurraldeetatik *arabartu* egin diren euskaldunak izango dira beste batzuk, euskarara hurbiltzeko pausua eman dutenak, zorionez, gero eta gehiago; eta altxor ezkutua bailitzan euskara ezagutu duten aurpegi berriak ere ohikoago egiten ari zaizkigu.

Beraz, etorkizuneko euskara egunez egun aberasten eta asmatzen dugun hori izango da, edo ez da izango. Hitz berriak, ahoskera berriak, soinu eta doinu berriak. Txistu egiten ez dakiten "tz" batzuk entzungo ditugu; ezkutaketan dabilen ergatibo galduren batek ihes egingo digu; erritmo karibetarrek dantzaraziko duten doinua entzungo dugu; espezia exotikoek zaporea eta usaina emango dioten hizkuntza ezagutuko dugu; belarrira min eman orde, akaso, jatorra irudituko zaigun erdarakadaren bat ere entzungo dugu; eta, finean, guztiona izango den hizkuntza biziko dugu.

Gure aldetik beste ezer gutxi esateko. Jarraian jasotako pasarteak izan daitezela aberastasun eta oparotasun horren adierazle.

Kanpotik etorritakoei, ongi etorri Araba euskaldunera. Euskara ezagutzeko hautua egindakoei, ongi etorri euskarara. Eta gure etxera sartzeko gonbitari erantzun diozuen guztioi, ongi etorri Arabako ALEAra. ■■■

Eskola segregazioa

Iban Zaldúa

Marta ezpain-margoan ukituak egiten topatu du, pintzel txikiaren mugimenduak ispilutxo batean jarraitzen dituela, ezaxolati, kafetegiko gainontzeko bezeroek kasu egiten dioten ala ez kontuan hartu gabe. Juneri ez zaio kolorea, arrosa argiegia, gehiegi gustatu. Bere burua zuzendu du berehala: ez zait kolorea niretzat gustatzen. Baina Martari ondo geratzen zaio, beti bezala. Martari dena geratzen zaio ondo.

Haren parean dagoen aulki librean eseri da June, eta, berehala, norberaren aulkitik pixka bat altxatuz, muxu arin bat eman diote elkarri masailean.

–Luze daramazu itxaroten?

–Ez, duela gutxi iritsi naiz.

–Zer moduz bidaia?

–Ondo. Forondan taxi bat topatzea kostatu zait, baina.

–Bai, beti berdin, neska. Pasatu al zara...?

–Ez, ez dit astirik eman; zuzenean etorri naiz hona –Martak aulki ondoan daukan Samsonite distiratsua seinlatu du-. Denbora nahikoa izango genuela pentsatu dut...

Zerbitzariak moztu du elkarrizketa; irribarre ederra zuzendu die biei, zer hartuko duten galdetu bitartean. Martak latte machiatto bat eskatu dio, eta June Jameson kopa bat eskatzeko zorian egon da, jelarik gabe, baina gero orduaz oroitu eta lotsa pixka bat eman dio; azkenean kafe amerikano bat izan da bere aukera, gaurko hirugarrena. Berehala damutu da, lehenengo hurrupa edan bezain laster.

–Ez diozu ezer esan, June. Zu, beti bezain antipatika –dio Martak burlaizez, koilaratxoarekin aparra hartu bitartean.

–Esan? Zer? Nori?

–Yusefi, emakumea. Ez didazu esango ez duzula ezagutu, ezta?

–Zerbitzaria? Yusef?

–Bai, institutukoa. Zure gelakoa. 3. DBHn.

- Joder, ba ez dut ezagutu.
- Berak zu bai, ordea.
- Geldi hor, Marta: badakit zer egiten saiatzen ari zaren. Ez nauzu errudun sentiaraziko: ez dut ezagutu eta kito. Gainera, ez ginen adiskideak ere, soilik gelakideak. Eta batxilergoan ez zuen institutuan jarraitu.
- Ja.
- Zuk ere agurtu zenezakeen.
- Bera ez zen sekula egon nire gelan. Gogoratu zu baino kurtso bat beherago nindoala.
- Hasieran: gero bi beherago –murduskatu du Junek.
- Berehala atsekabetu da Martari errepikatzailea izan zela gogorarazi izanaz. Zorionez, ez dio gaiari heldu, eta zerbitzariak hitz egiten jarraitu du.
- Goapoa dago.
- Ez naiz fijatu –erantzun du Junek, eta egia da, zerbitzariaren irribarre zuri zabalaz baino ez da gogoratzen, Yusef goapoa egon daitekeenik burutik pasatzen ez bazaio ere, institutuan zebiltzanean itsusi mortala iruditzen zitzaiolako.
- Zerbait esan beharko zenioke kobratzera itzultzen denean.

Junek sekula ez daki Martak halakoak fede txarrez botatzen dituen, ala besterik gabe: orain urduri egongo da Yusef bueltatu arte, zer esan asmatzeko ezgai. Izan ere, institutu hura gorroto zuen: eraikin itsusia, altzari zaharkituak, irakasle urtetsuak, ikaskide zalapartatsuegiak. Berak ikastolara joan nahi zuen, Kontserbatorioko hari-laukoteko bere adiskide Sofia bezala, baina gurasoek, hippie alproja haiek, eskola publikoaren aldeko beren erretolika guztiarekin, ez zioteten sekula utziko. Ezta inoiz bere desioa haiei adieraztera iritsi izan balitz ere. Egin ez zuena, etxeko neska esaneko eta ikastunari zegokion bezala.

Protestatu ez zuen bezala, aita hil, eta amak proposatu zienean, testamentuaren arabera oinordetzan zegozkien haren diruak ez banatzea –erdiaren erdia Junerentzat, eta beste erdia Martarentzat–, eta guztia amari berari uztea, baita Beato Tomas de Zumarraga kaleko etxebizitzaren usufruktua ere. Martari oso ondo iruditu zitzaion amaren proposamena, premiarik ez baitzuen batere. Eta berari, ondorioz, ondo iruditu behar izan zitzaion, orobat.

- Zer moduz lana? –galdetu dio, denbora egitearren, Martari.
- Topera. Leku batetik bestera, gelditu gabe. Chamberiko etxea ez dut zapaltzen ia. Jope, badakizu nor aurkitu nuen aurrekoan Shangain? Iker Urbistondo. Pudong aldeko kokteleria batean nengoen ordezkartzakoekin, eta hara non agertu zen bera; beste bilera batetik zetorren bezeroekin batera. Ez al zaizu kasualitate galanta iruditzen? Shangain, neska: hiri hura erraldoia da... Halako zerbaiten probabilitateak ikaragarri txikia izan behar du...

Izenaren aditzea badu, nahiz eta aurpegirik ez dion jartzen morroi hari. Baina Olabideko Martaren ikaskide bat izango da, zalantzarik gabe. Aberaskume haietako bat. Marta bai joan zelako Olabide ikastolara, kurtsoa errepikatzeagatik hain zuzen ere: gurasoek beren diskurtso progrer guztia irentsi eta, “Marta gajoaren hobe beharrez”, hara bidali zuten DBHko 4. kurtsoa errepikatzen, “ikasleen martxa hobeto zaintzen dute han, gainerago dauzkate irakasleak”. Oztopo handiekin gainditu zuen



ikasturte hura, eta baita batxilergoko biak ere, baina ez zuen berriro errepikatu, eta, etxeko guztion harridurarako, bikain moldatu zen karreran zehar, Deustun, eta, ondoren, ESADEn egin zuen masterrean.

Urbistondo hori bezala, bidean etengabe gurutzatzen zaizkio Martari Olabiden ezagutu zituen ikaskide haiek, bera baino urtebete gazteagoak denak. Eta haien senideak, eta haien adiskideak, eta haien sozioak. Lehenengo lanpostua haietako baten bitartez lortu zuen, maiz gogorarazten zuen bezala, kontuari garrantzi handirik eman gabe baina.

Horretan pentsatzen ari dela, Junek ez du entzun bere ahizparen galdera. Errepikatu behar izan dio:

–Ea zu zer moduz lanean...

–Ondo –ez da guztiz egia: aurten talde bereziki zail baten tutorea da, eta oraindik ez daki nola moldatuko den hamahiru urteko pizti haiekin guztiekin. Batez ere Janet eta Valentinarekin: ziur dago haiek ez baleude gelako giroa ezberdina izango litzatekeela. Izan ere, beste taldeekin ez du hainbeste arazorik. Nahiz eta, azkenean, beti moldatzen den. Behintzat, kontsolatzen du bere burua, sekula ez zaio egokitu bere institutu zaharrean eskolak ematea. Oraingoz behintzat. Seguru han



daudela oraindik altzari zaharkitu haiek guztiak. Nekez jasango luke patuaren ironia hori.

–Nahi duzunean joan gaitzke ospitalera –gehitu du Junek, bere kafe kikara hustu ondoren–. Lehenbailehen amaitu nahi nuke.

–Gaur bertan izan behar du? –galdetu du Martak–. Nik pentsatzen nuen... Azken finean, egun batzuk gehiago gera naiteke...

–Lanean baimen gehiegi eskatu ditut honez gero –“Zu kanpoan bizi zarelako” gehitzeko gogoia izan du Junek, baina garaiz eutsi dio mingainari–. Gainera, horrela genuen adostuta, ezta? Ondo baino hobeto dakizu zein den egoera.

–Hala ere, tira, pixka bat itxaron genezakeen. Esan dizut, niri ez zait inporta... Beste egun bat edo birengatik... Haren ondoan pixka bat egotearren...

–Amaren bizi-testamentuaren baldintzak argiak dira, Marta: honetara iritsiz gero, deskonektatzea eta kito. Nahikoa atzeratu dugu jada ueña, zu garaiz irits zintezten.

Marta isilik geratu da, zerbait esatera doala dirudien arren.

Une horretan iritsi da kontuarekin, lehengoa baino irribarre are zabalagoarekin, Yusef. Eta June ohartu da oraindik ez duela pentsatu zer demontre esango dion. ■■■

Hitzen distira



Karmele Jaio

Gasteizen bakarrik deitzen diegu “urbanoak” hiritik dabiltzan autobusei? Inoiz beste hiriren batean “urbanoa” hitza aipatu eta arraro begiratu didate eta, horregatik galdetzen dut. Beno ba “urbano” batean noa, hain justu “urbano” hitzaren erabileraz pentsatzen, eta bi mutiko igo dira. Bi mutiko beltz, hamar-hamaika urte edo izango dituztela kalkulatzeko, gehiagorik ez. Eskolara doaz, biak bakarrik, beraien motxilak sorbaldan. Bustita dituzte motxilak, euri zaparrada bota duelako duela gutxi, nahiz eta oraintxe bertan eguzkia atera den.

Halako batean, haietako batek besoa luzatu du eta leihorantz zuzendu du atzamarra.

–Mira –esan dio lagunari, gazteleraz, eta biak zerura begira jarri dira.

Orduan, zerutik bista kendu barik, besteak silabaz silaba ahoskatu du hitz bat, euskaraz:

–Os-ta-da-rra.

Eta barrezka hasi da.

–Os-ta-da-rra –errepikatu du, mantra bat errepikatzen balego bezala, irribarrez, hitz hark bere ahotsean hartzen duen dimentsioaz harrিতuta bezala.

Eta orduan sentitu dut mutiko haren aho irribarretsutik mila kolore atera direla. Izan ere, haren ahotsean eta era horretara ahoskatuta aurretik ezagutzen nuen hitz bat aditu dut distira berezi batekin. Mutikoak distira atera dio hitzari. Nire buruan gordeta zegoen hitza berpiztu egin du.

Os-ta-da-rra.

Lasarte eta Armentia ingurutik nabil seme-alabekin paseoan. Gelditu egin gara une batez. Gari zelai zabal bat dugu begien aurrean. Oleoz margotutako koadro bat ematen du: behealdean horitutako garia eta goiko aldean zeru urdina eta hodei zuri handi eta potolo bat. Gari zelaiaren zabaltasuna ikusita, itsasoari begira gaudela ematen du. Itsaso hori baten aurrean gaude. Nork esan du Araban ez dugula itsasorik? Alabak orduan gari ale bat hartu du esku artean eta ea zer den galdetu dit. Eta nik, bat batean, egun batzuk lehenago autobusean ikusitako mutikoak gogoratuta, erantzun diot:

–Ga-ri-a.

Hasiera batean, harritura geratu da nire hitz egiteko modua ikusita, baina asko pentsatu gabe, errepikatu egin du hitza:

–Ga-ri-a.

Eta barre algaraka hasi da.

Eta sentitu dut alabaren ahotik urrea irteten ari dela. Izan ere, haren ahotsean eta era horretara ahoskatuta aurretik ezagutzen nuen hitz bat aditu dut distira berezi batekin. Alabak distira atera dio hitzari. Garia hitza urre kolorez berpiztu du nire buruan.

Ga-ri-a.

Autobusean zihoan mutila ostadarra hitza modu berezi hartan ahoskatzen entzun nuenetik hainbat hitzekin egin dut gauza bera: ingurura begiratu, eta ikusten nuenaren izena xerratan moztu, supermerkatuetan ogia mozteko dauden makina horietako batekin bezala.

Eta horrela, paseoan atera naizenean ahoskatu ditut: Txo-ri-a... Zu-hai-tza... Hos-to-a.

Ispilura begiratzean esan dut: Be-gi-ak... Su-du-rra... I-le-a.

Kalera irtetzean: Es-pa-loi-a... Zu-bi-a...

Eta hitz horiek lehen aldiz aditzen ditudala sentitu dut, haien gustu eta koloreak dastatu ditut. Hitzek beste dimentsio bat hartu dute nire buruan. Eta pentsatu dut nire hizkuntzak zergatik jarri dizkien izen horiek gauza horiei, eta ez beste batzuk. Nork asmatu ditu hitz horiek? Nork ahoskatu zituen lehenbiziko aldiz? Noiztik existitzen dira? Noiz arte iraungo dute?

Gaur bisita egin diot amari nagusien egoitzara. *Goazen kanpora haizea hartzera hemen trapu zaharrak baino ez daude eta, esan dit kexati, gurgildun aulkian buelta bat ematera atera*

dudanean. Egoitzaren ingurutik egin dugu buelta, eta kontatu diot azkenaldian zerbait bitxia gertatzen ari zaidala hitzekin, poliki-poliki dastatzen ari naizela hitz bakoitza, eta ondorioz, inoiz baino distira gehiago dutela iruditzen zaidala, inoiz baino baliotsuagoak sentitzen ditudala. Eta honek hainbat galdera sorrarazi dizkidala hitzei buruz eta nire hizkuntzari buruz. Hitzak silabatan ahoskatzeak hitzekin orain arte izan ez dudan harreman berezi baterantz naramala...

Amak ez dit bukatzen utzi. Esan dit guk beti pentsatzen dugula lehenak garela dena egiten, eta ez dela horrela, kontatzen ari naizena ez dela batere berria, berak asteartero egiten duela logopedarekin. Hitz bat hartu eta poliki-poliki ahoskatu.

Erdi irribarrez, saiatu naiz azaltzen berak egiten duen ahoskatze ariketa eta ni hitzekin edukitzen ari naizen “esperientzia estetiko” ez direla gauza bera. Eta orduan ingurura begiratu eta adibide batekin azaldu nahi izan diot nik hitz bakoitzaren edertasuna gertutik ikustea bilatzen dudala,

The word "OSTAD" is written in large, stylized, red letters with a textured, hand-drawn appearance. The letters are outlined in black and have a mottled red fill. The 'O' is circular with a hole in the center. The 'S' is a simple, blocky shape. The 'T' has a horizontal bar with a small notch in the center. The 'A' is a simple, blocky shape. The 'D' is a simple, blocky shape. The letters are arranged in a horizontal line.

haren soinuak nire barnean sortzen duen zirrara sentitzea...
Une horretan gure albotik autobus bat pasatu da eta esan diot:


–Begira, ama, itxi begiak eta entzun: Au-to-bu-sa.

Eta orduan amak buruarekin ezezkoa egin dit eta begietara begiratuz esan dit:

–Ez, hori urbanoa da: Ur-ba-no-a.

Amarekin egon nintzenetik hitzak zatikatzeari utzi diot. Haren logopeda etortzen zait burura saiatzen naizen bakoitzean. Baina galderek nire buruan jarraitzen dute: Zergatik deitzen diegu Gasteizen autobusari “urbanoa” eta zergatik ez gertuko beste hiri batzuetan? Nork erabaki du hala izatea? Agian distira ateratzean datza sekretu guztia, hitz batek irauteko egunero distira aterako dion norbait behar duela, alegia; ostadarra esango duen norbait, txoria esango duen norbait, zuhaitza, zubia, begia, ilea... ■■■

ARRA



Iluntze bat Gasteizen



Beñat Goitia

Iluntze hartan Gasteizen gertatuko zenak guztia aldatuko zuen betiko. Gasteiz ez zen gehiago Vitoria izango.

Ez naiz inoiz izan gertakari paranormalen jarraitzaile, are gehiago, eszeptiko izan naiz. Baina iluntze hartan gertatutakoa ezin da bestelako arrazoiekin azaldu.

Amonak esana zidan, Teleberriko eguraldiaren gizonak ekaitz “arraro samar” bat iragarria zuela Gasteizen, baina inork ez zion aparteko garrantzirik eman. Arratsaldeko 20:30ak inguruan, zerua hodei ilunez estaltzen hasi zen. Hezetasun usainak jarraitu zion eta ohiko tanta lodiak hasi ziren. Zerumugan tximistak ohi bezala, eta ur zaparrada. Baina, gaueko 21:00ak jotzean zirela, inoiz inork inon entzundako eztandarik handienak kolpatu zuen hiria.

Oinaren azazkaletatik sartutako korrante elektriko batek gasteiztar guztiei gerarazi zien bihotza. Burmuinean presio jasanezin bat, odola mantso eta lodi zainetan barrena, konortea galdurik. Isiltasunak hartu zuen hiria. STOP. Guztiak STOP egin zuen.

Ordubete beranduago, gaueko 22:00etan, San Miguel elizako kanpaiek talka egin eta guztiak ezer gertatu izan ez balitz bezala jarraitu zuen. Buruko min lauso bat, ahanztura sentsazio labur bat, baina ez beste ezer.

Nire ondoan, bi ertzain. Eta bata besteari euskara batu jatorrean: “Hau buruko mina. Zer arraroa izan den hau, ezta? 22:00ak dira dagoeneko?”, eta besteak ere euskaraz erantzun “Lasai motel, sekulako hego haizea dabil eta badakizu, hego haizea ero haizea”.

Bitxia egin zitzaidan bi polizia elkarren artean euskaraz hitz egiten entzutea. Baina gaztetako aurreiritziei egotzi nien harridura, gazte nintzenean “edonor” ez baitzen polizia lanetan aritzen. Ordurako baina, modako lanbide bilakatua zen

eta jatorri eta pentsamendu orotako gazteak alistaraten zirenez, ez nion garrantzirik eman.


San Prudentzio kalean barrena, *Florida* zinemen paretik pasa nintzen eta estreinaldien karteletako batek atentzioa eman zidan. Belen Rueda, Macarena Garcia eta Eneko Sagardoy ziren aktore nagusiak azaleko argazkian eta filmaren izenburua euskaraz: AMEK EZ DUTE. Eta izenburuaren azpian: *Katixa Agirrerren obran oinarritua*. Eta kartelaren gainean itsatsitako orri batek honela zioen: "*Proyección NO subtitulada en castellano*".

Nahasmenaren eta barreguraren arteko sentsazio batek ilundu zidan begirada. Katixa Agirrerren liburu bat Espainiako aktore entzutetsuenek zinemaratua. Gasteizen, filma bat euskaraz eta gaztelaniazko azpititulurik gabe ikusteko aukera. Zer arraio!

Karteldegiairen gainontzeko estreinaldiak begiratu eta guztiak ziren euskarazko filmak. Berriz ere, jaramonik ez egin eta Jaurlaritzak diruz lagundutako euskararen zinearen astea izango zela pentsatu nuen.

San Prudentzio kalean aurrera egin, eta lehen Guridi zinemek betetzen zuten lokaleko supermerkatuara abiatu nintzen. Kalea igaro bitartean, Uriarte izeneko agure aberats batek sortutako proiektu komertzial baten saltokien paretik pasa, eta McDonalds, H&M, Primark, Zara eta American Vintage-n erakuslehoetan mezu guztiak euskara hutsean.

Baina aurrera egin eta supermerkatuara iristean, eztrandak Gasteiz betiko aldatua zuela ohartu nintzen. Ez zegoen supermerkatuik. Neoizko argi gorri batzuk zeuden dar-darka, alfonbra gorri bat lurrean eta ahobizi txapa soinean zuten bi atezain mardul atearen alde banatan. Hauxe zioten neoizko argi dotoreek: GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA.



Bi bikote gazte aretoan sartzear, biak ezagunak. Batzuk, irakaskuntzak Beasainetik Gasteizera ekarriak eta besteak Gasteizko Marianistas ikastetxean ikasitako abokatuak. Bi bikoteak areto berdinean.

Ametsetan nengoen, argi zegoen. Atximurka egin nion nire gibelari eta erreakziorik ez. Harramazka egin nuen lepoan odola eragiteraino eta ezer ere ez. Beharbada, ikusten ari nintzena egiazkoa zen.

Pareko liburu dendan sartzea erabaki nuen, gertatzen ari zenaren aztarna gehiagoren bila. Lehen ere euskarak bazuen espazioa denda hartan, baina guztiz eraldatua zegoen. Orain euskarazko liburuak generoka bereziak zeuden, Atxagaren *Nevadako egunak* narrazioen apalean eta Fidel Castoren biografia, biografien atalean. Ez nekien euskaraz idatzitako liburuak bereiz zitezkeenik.

Musikaren gunera jo eta bertan ere Liher-en azken diskoa rockean eta Izarorena pop-ean bereziak zeuden. Eta apalaren izkina batean, beste genero bat izango balitz bezala, Sabina eta Novedades Carminha bata bestearen atzean, ESPAINIAR MUSIKA txartelaren azpian.

Paperen, kartulinen, txintxeten, margoen, errotulagailuen eta motxilen sekzioak igaro ondoren, liburu dendaren beste puntara iristea lortu nuen. Han, "Espainiar literatura" idatzia zuen kartel baten azpian zegoen Eva izeneko emakume bat, liburu baten aurkezpenaren tankera zuen ekitaldi itxurazko batean. Bakarrik zegoen, bere senarrak eta semeak lagunduta eta publikoa zirudien adineko gizon bakarra.


Ez badut gaizki gogoratzen, *Hiri zuri* baten inguruko nobela bat aurkeztera zihoan, baina ez zen inor ere aurkezpenera hurbildu. Eva delakoak etsipen ikutu batekin, baina sorpresa handiko tonu handirik gabé senarrari "Si es que ya les dije, a esta misma hora está Patxi Zubizarreta en Zuloa presentando libro y habrá colas hasta el Dublín".

Ez nuen ezer ulertzen. Liburutegiko arduradun batek aurkezpenari hasiera eman zion eta adineko gizonaren ondoan eseri nintzen. Ahopeka eta gaztelaniaz noski, "Esta escritora es de Vitoria?" galdetu nion. Gizonak zeharretik begiratu ninduen, mesfidati eta nire txundidurarako "Ehh, barkatu, baina ez dut gaztelaniaz hitz egiten, hau zer da liburu aurkezpen bat? Gero luncha egongo da, ezta?".

Beldurtuta atera nintzen liburu dendatik. Mundua iraulia zegoen eta inor ez zen horretaz jabetzen. Euskara hiriaren erdigunera ekarria zegoen, ez zen gutxi batzuen ghetto endogamikoa. Gutxitua zena handi zen orain. Eta lehen ahalguztidun zena, marginal zen orain.

Baztertua den zerbait hauspotzeko, ez da nahikoa bazterrean mantenduta elikatzea. Horrela, bizirik iraungo du bai, baina bazterrean.

Bitartean, tximistaren zain. ■■■







ALEA

arabako ~~abdi~~zkaria
Pasarteak

Txoriei beha



Katixa Agirre

Gasteiza gindoazen, Luciarenean bazkaltzera, ezin genuen hitzordua gehiago atzeratu. Anfitrioiak dena prestatu bitartean bazkალაurreko txango bat antolatzea pentsatu genuen. Luciak Salburua aipatu zigun, hezegune handi bat, hegaztiez beteta. Bost axola zait mokodun animalia oro, baina Joni begirada piztu zitzaion. Nik gidatzen nuen, Jonek azken begirada bat bota nahi ziolako Salburuako urmael, landaretza eta faunari buruzko orri bati. Inguruetan dabil bisoi europarra, galtzeko zorian omen dagoen animalia, ba al zenekin?

Nola jakingo nuen hori? Harrituta neukan bere bat-bateko interes horrek, baina ez nuen zirikatatu nahi eta ia hitzik egin gabe bidaiatu genuen. Bereziki udatiarra eta itogarria zen egun hartako beroa. Horregatik agian ez zebilen jende askorik bazterretan. Autoa dorre bioklimatiko (sic) baten aurrean utzi genuen eta Gasteizko azken arrasto horiek laster utzi genituen atzean. Salburua, parke naturala. Ongi etorri Gasteizko eraztun berdera. Egin behar genuen lehenengo gauza prismatiko batzuk lortzea zen: hori, Jonen aburuz, ezinbestekoa zen. Harrera zentroan emango ziguten pare bat maileguan.

Nik ez nuen prismatikorik behar, bero nintzen eta pisuak zitzaizkidan oso. Jonek nireak garraiatzea onartu zuen. Aspaldi ez nuela hain adeitsu ikusten. Lur horiko bidexka batean sartu ginen, eta gizona ingurua azaltzen saiatzen zen: zikoinak, zingira landareak, auskalo. Bidexka horretatik bide txikiago bat ateratzen zen, eskuin aldera. Bide berri horretan sartu baino lehen hiru kartekek azaltzen zuten hortik aurrera egin behar ez

zena: zaratarik ez, txakurrik ez, flashik ez. Leku sakratu batean sartzear geunden.

Hegaztien behatoki batera ailegatzen omen zen bidexka txiki hori jarraituz, bidea oholez hesitua agertu zitzaigun bat-batean. Korridore horretatik ezin zen ezer ikusi, baina entzun bai, entzuten zen naturaren orro leundua, eta hozkirri bat sentitu nuen bizkarrean gora.

Behatokira ailegatu eta etxola hartako freskotasuna eskertu nuen. Aintzira baten erdian kokatuta zegoen etxetxo, masten gainean. Barruko erosotasun bakarra banku luze bat zen. Leiho laukizuzen luzeak zituen halaber, eraikinaren perimetro ia osoa inguratzen zutenak. Hortik hegaztiei so jarri behar genuen, nonbait. Horixe omen zen koska.

Jon emozioz gainezka. Bankuan eseri zen, prismetikoak begien aurrean kokatu eta isiltasun erlijiosoz ingurua behatzen hasi. Ni ere saiatu nintzen prismetikoak nire begietara egokitzen. Ez nuen ezer ikusten. Frustratuta, panel koloretsuetako marrazkitxoei begira geratu nintzen. Hegazti horien izenak gazteleraz, euskaraz eta latinez. Ar eta emearen artean diferentzia adierazgarriak baldin bazeuden, bi marrazki desberdinez adierazita zegoen. Beha orokor batez, emeak arrak baino erakargarriagoak zirela konturatu nintzen.

Jon nire belarrira hurbildu zen orduan, isiltasuna gomendatzen zuen kartela aintzat hartuz, eta hitz bakar bat utzi zuen nire belarriaren atarian.

–Zoragarria.

Ez zuen doinu bereziz esan, baina aldi berean eskua izterrean jarri zidanez, sustoa hartu nuen. Prismetikoak hurbildu nituen berriro, txoririk ikusi gabe jarraitu nuen. Jonek eskua gona azpitik sartu zidan, izterrean gora eginez.

–Zer –esan nion.

–Zer –erantzun zidan.

Ez nizkion gauzak errazegi jarri nahi eta ez-ikusiarrena egin nuen bi minutuz. Begiratu txoriei eta lasai utzi ni, esan nahi nion. Zikoinaren habiari begira gelditu nintzen, kumeek burua noiz aterako. Baina Jonek ez zuen gelditzeko inongo asmorik, eta horrek harritu ninduen, azken boladan ez baitzegoen bere punturik inspiratuenean. Nire kalkuluen arabera baziren hamabi egun gure artean kontaktu fisikorik ez zegoela (lanetik bueltan emandako musu despistaturen bat salbu), nire proposamen guztiak sotilki errefusatzen zituela, nekatuta zegoela, bizkarreko minez. Gainera, nik aurreko astean –kontsultatu gabe– erositako telebista garesti berriak gure arteko giroa apur bat gaiztotua zuen, zertan ukatu.

Baina Jon *smart tva* eta zikoinak eta prismetikoak ahaztear zegoen, nire kuleroek markatzen zuten mugara ailegatu berria.

–Jon, hemen ez –esan nion eskuineko bularra estutu zidanean.

–Zergatik ez, ez dago inor.


Perbertsio baten jabe izango ote zen? Txoriak inguruan behar ote zituen behar bezala berotzeko? Tira, gauza okerragorik bazegoen. Batzuek telebista piztuta behar dute. Eta ziur ez direla Jon bezain fin aritzen. Baina zer ari zen? Horiek atzamar-rak horiek!


Edozein momentutan behatokiko atea ireki eta familia ugari bat sartuko zen, baina Jonen udako praka finak puztuta ikusi nituen eta atzera bueltarik ez zegoela onartu nuen. Ez nuen bere prakak askatzea beste erre-mediarik izan. Kuleroak kendu zizkidan berak eta txorien izenak eta marrazkiak azaltzen zituen panelaren gainean utzi. Nire hankarteko tolesdurekin jolastu zuen denbora dexentez, atzamar umelak gora eta beheara, barrura eta kanpora, gehiago agoantatu eta isiltasuna eskatzen zuen kartela ahaztera nindoan momentura arte. Orduan erabat etzanarazi ninduen banku luzean, eta nire gainean jarri.

–Gogor, mesedez –esan nion, balizko familia ugaria ahaztuta.

Eta hala egin genuen, gogor, banku gogor horren gainean. Berehala bukatzeaz nengoela sentitu nuen. Jonen begirada jasangaitza egin zitzaidan eta kanpora begira jarri nintzen, leihatila laukizuzenek ahalbidetzen zidaten zeru eta zuhaitz puskarak, gure arnasek naturaren arnasketarekin bat eginda.

Orduan ikusi nuen, berehala errekonozitu: amitxori txikia, leihatilan paratuta, mugitu gabe eta karteltxoak eskatzen zuen isiltasuna errespetatuz, guri begira, oso kontzentratuta. Txori sinpatikoa egin zitzaidan. Munduaren bere aldean panel koloretzurik ez dagoenez, seguru asko zaila egingo zitzaion nor zen arra eta nor emea desberdintzea. Zertan ari ginen, ordea, erraz asmatuko zuen. ■■■





Biharamunean



Mikel Ayllon

Esnatu nintzenean jadanik ez zeunden han.

–Ezagutzen al duzu hizketan ari den hori?

Ez dakit nondik agertu zinen, nola eseri zinen nire ondoan. Urte luzez egon nintzen Laudiotik kanpo, eta aurpegi asko eta asko ezezagunak egiten zitzaizkidan, batez ere gazteenak.

–Oso ondo hitz egiten du.

Ia orduantxe isildu zen hizketan ari zen gaztea. Esandakoen erdiak ere ez nizkion aditu, apur bat zure erruz, apur bat hainbeste jenderen artean bakarrik egoteak eragiten zidan urduritasunarengatik.

Herriko plazan eseritako guztiak eskuak igo eta airean eragin zituzten, haizea laztantzen ariko balira bezala. Txalo mutuak ziren. Ez zinen hizlaria ondo aritu zela uste zuen bakarra.

–Orain da gauzak esateko unea.

Isilik begiratu zintudan. Lehen aldia zen begi horiek ikusten nituena. Akordatuko nintzen, bestela. Ez zinen horren gaztea. Oraindik ez dakit zergatik aukeratu zenuen nire ondoan jartzea, indioen eserimodua antzeratuz. Beharbada, zure adinkidea-edo izango nintzelako, han gazteak eta adinekoak baitziren gehienak. Suposatzen dut gauza gehiegi genituela guk galtzeko.

Konturatzera, zutik ikusi zintudan, nire ondo-ondotik jende guztiari hizketan.

–Ez daukagu galtzeko ezer.

Zure esku hutsak erakutsi zenizkien denei. Eta denek erantzun zizuten haienak erakutsiz. Irribarre batekin niregana begiratu zenuenean, nik ere erakutsi nizkizun nireak, gero eta zimur bilduma handiagoaren jabeak. Gero esaten hasi zinen hura hasiera besterik ez zela, Gasteizetik zentozela eta han ere milaka ginela, dena aldatuko genuela, eta gartzetatik aditzen ez nituen izenak ahoskatu zenituen, Bourdieu, Vattimo, Debord, Badiou.

Nik airean dantzatzen zenituen esku hutsetan iltzatuta nituen begiak.

Beste txalo-zaparrada isil batek eztanda egin zuen plazan, eta irribarre erdi batekin nahikoa izan zenuen denei batera erantzuteko, berriro lurreen eseri aurretik. Abuztuaren 15 bateko txupinazoan ere ez nuen horrenbeste jende batera ikusi plazan. Eta han zeunden zu, justu nire ondoan jarrita.

–Okerrena bihar dator.

–Bihar? Zer gertatuko da bihar?

Inozo hutsa nintzela pentsatuko zenuen. Behingoz ahoa ireki zertarako eta zure aldean zer ezjakina nintzen erakusteko. Ez zenidan erantzun. Edo hobe: beste irribarre erdi batekin erantzun zenidan, oso-osorik niretzat.

Gaua plazatik mugitu gabe emateko prestaketa-lanetan hasi zen jende asko. Pixkanaka, ezerezetik olanazko herri txiki bat hazi zen harlauzen gainean. Egun hartan, inork ez zuen zalantzan jarriko harri haien azpian hondartza bat ere egon zitekeela.

Gaua laster zen etortzekoa, eta luze jo behar zuen. Gazte batzuk ibaiaz beste aldeko tabernetarantz abiatu ziren. Ospatzen hasi beharra zegoen. Buru-keinu bat egin nizun, eta laster ginen gu ere haien atzetik.

Ardo bat eskatu nuen nik, zerbeza bat zuk. Sorgin tabernako terrazan eseri ginen. Irribarreak partitzeari utzi zenion.

–Orain guztiek uste dute dena eginda dagoela. Gauzak berez aldatuko direla, gehiago garelako.

Tabako paketearen bila poltsikoak arakutzen hasi nintzen, praktakoak, jakakoak. Zuk berehala aurkitu zenuen zurea. Ezpainetatik zigarro bat zintzilikatu eta mahai gainean utzi zenuen paketea, hitz egiteari utzi gabe. Bat hartu behar izan nizun, zuk eskaini gabe.

–Baina bihar iratzargailuak joko du. Goizaldean, beti bezala. Lanera joateko, edo ikasgelara, berdin dio. Eta horixe izango da une erabakigarria, zirt ala zart egitekoa.

Hurrupa bakarrean garagardo erdia kendu zenion edalontziari.

–Bihar irabaziko dugu. Edo galdu. Ez gaur.

Kopa hutsik neukanez ez nuen tentaziorik izan altxatu eta topa egiteko.



Beste bizpahiru ardo gehiago hartu nituen, zu oraindik lehen garagardo beroarekin zeunden bitartean. Laudiora itzuli nintzenezan inguruko fabrika batean aurkitu nuen lanaz hitz egin nizun. Galdaren artean egiten zuen beroaz, taladrinaren usain jasangaitzaz, etengabeko loguraz. Isilik aditu zenidan tarte luze batez.

–Etxera itzuli beharko nuke.

Lagunduko nizula esan nizun, ardoak adoretuta. Goiz zen oraindik, eta hurrengo egunean, gainera, ez genuen lanera joateko goiz-alban esnatu beharrik. Irabazteak sekula baino gauza errazagoa ematen zuen.

Altube atzean utzi eta berehala heldu ginen Gasteizera. Unibertitatean inguruan aparkatu zenuen autoa, trenbideetatik haratago. Astiro paseatu ginen hiritik. Semaforo gorriak itzali gabe zeharkatu genituen errepideak, ez beti zebrabideen gainetik. Irribarre konplizeekin agurtu genituen bidean topatutako ezezagun guztiak.

–Dagoeneko zerbait aldatu da –ausartu nintzen esatera.

Ez erantzuteko, beste norabait so egin zenuen.

–Zer moduz ibili zara kanpoan?



Eufemismo ezinezkoenetan ezinezkoena izan zen kanpoan hori. Bazenekien nor nintzen, beraz. Non eduki ninduten.

Andramari Zuriaren plazara eraman gintuen gauak. San Migeleko balkoitik begiratu genion han bildutako jendetzari. Kanpin-denden atzealdean, bi farolaren artean eskegita zegoen pankartetako bat seinalatu nizun. “Kaosa da onartuko dugun ordena bakarra”. Gero eta irribarre eroriagoarekin erantzuten zenidan.

Ipuin bati bezala begiratu zenion errealitateari lehen aldiz.

Zapako taberna batean sartu ginen. Ez dut gogoratzen izenik. Bosgarren ardotik aurrera, mundua lainotzen hasi zitzaidan buruan. Gogoan dut behin eta berriro hitz egiten zenuela biharamunaz. Kapaz izango ote ginen, esnatutakoan, mila zatitan hautsi genuen ispiluaren aurretik igaro eta puskak bertan uzteko, ezer ez jasotzeko. Gogoan ditut zure ezpainak, nireen kontra estutzen. Gogoan dut zure etxeko igogailuan kendu genizkiola arropak elkarri, dorpe, zakar. Haginkadak, harramazkak, miatzadak, astinaldiak.

Gogoan ditut zure begiak, betazalen azpian atsedean hartzen.

Ez dut gogoan iratzargailurik, baina esnatu nintzenean, jadanik ez zeunden han. Eta eguzkia errezelen artetik sartzen zen, epel. ■■■

Eguna egunekoentzat eta gaua gauekoentzat

Elisa Rueda

Eguna egunekoentzat, pentsatu zuen Sofiak bere lagunei itxaroten ari zen bitartean. Dagoeneko bi urte pasata ziren, kasualitatez –kasualitatea ez da existitzen– KALEA aldizkaria eskuetara ailegatu zitzaionetik. Barruan iragarki bat, Apinaizen etxe bat salgai zela zioena.

Izki parketik eskegita dagoen Arabako mendialdeko bazter txiki horretara joan behar izan zuen bizitzera, bere burua ezagutzeko, bere paradisia aurkitzeko.

Ander eta Miren betidanik ezagutzen zituen, kuadrillako lagunak baitziren. Gaur zetozen Uxuerekin, haien sei urteko alabarekin, Izki basoan ibilaldia egitera.

Udaberria iristear zela zioen egutegiak, baina basoa lokartuta zegoen oraindik. Zuhaitz biluziz, orbel lehorrak eta nabarrez margotuta zegoen paisaia. Lurreko hostoek nekez eusten zioten berezko formari, hain ahul, desegin egiten baitziren zapaltzean.

–Entzun, Uxue! Hostoak entzuten dituzu? Zapaltzen ditugunean, hemengo biztanleei abisatzen diete bisita dutela, etorri garela haien lurraldera. –esan zion Sofiak ahopeka Uxeri.

–Hemengo biztanleei?

Harridura aurpegia jarri zuen neskatoak.

Sofiak eskutik zeraman umea. Ander eta Miren atzerago zihoa-zen, haiek ere eskutik helduta.

–Begira, Uxue, ikusten duzu enbor hori? Ezpainak ditu, eta ondoan dauden bi horiek musukatzen ari direla ematen du.

Gurasoek barre egin zuten, eta Anderrek belarrira esan zion Mireni:

–Ezpainak, bai, baina aluarenak, eta beste horiek larrua jotzen ari direla dirudite.

–Maitagarriak hemen bizi dira. Batzuk zuhaitzetan, eta lamiak erreketan. Entzuten dituzu xuxurlak?

Ailegatuak ziren aintzirara. Sofia uretara begira geratu zen, pentsakor, hondora begira, amodiozko abesti leun bat kantatzen.

Umeak ere oso adi jarri zuen belarria; gurasoek, oraindik zuhaitzetan galduta, elkar sutsuki musukatzen jarraitzen zuten.

–Eta zer esaten dute? Ez dituzu entzuten?

–Esaten dute ume bat entzun dutela, eta ikusi duten izakirik politena dela.

Salto egin, eta erreka beste aldera pasatu ziren, Uxuek ura ukitu zuen, lamiei haien laguna zela esateko.

Gune harritsu atera ailegatu ziren. Harri oso handiek santutegi itxurako haitzulo bat osatzen zuten.

–Hemen izaki maltzurak bizi omen dira. –Esan zuen Sofiak, Uxue kobazulotik urrunduz zedin. Uxueren amaren begirada izutua ikusi zuenean, ordea, azkar zuzendu zuen kontua.

–Ez izan beldurrik, iratxoak dira, jeinu bihurriak. Maitagarriak sartzen badira, haiek lokatzez zikintzen dizkiete hegoak. Baina ez digute ezer egingo, nire lagunak dira-eta.

Ander belarrira ari zitzaion Mireni. Makurtu, eta sartu egin ziren.

–Etor zaitez, nire maitagarria, zure jeinu bihurria naiz... Zer nahiago, hegoak lokatzez bustitzea edo...

–Ama, atera hortik, ez diozu entzun Sofiari jeinu maltzurrek bihurkeriaren bat egin ahal dizutela?

Mirenek, barrez, arrastaka atera zuen Ander kanpora. Denbora luzea zeramaten elkarri eskua eman gabe edo ezkutaketan jolastu gabe: hurbildu, probokatu eta gero ezkutatu, azkenean desioak jota etxeko edozein bazterretan larrua jotzen bukatzeko. Maitagarriengan sinesten zuen ume zoragarriak sei urte zeramatzan haien denbora guztia hartzen.

Magalean gora jarraitu zuten, non pago gehienek zulogune bat zeukaten.

–Begira, Uxue, zulo hauetatik sartzen dira maitagarriak etxera joateko. Behean bizi dira. Zuhaitzen azpian, sustraien artean, kalez beteriko labirinto bat dago.

Anderrek eskua sartu zuen zulo horietako batean, eta Miren aieneka hasi zen, benetan maitagarri bati iletik heldu balio bezala.

Uxue, izututa, korrika hurbildu zen enborrera. Berehala konturatu zen txantxa bat zela. Etsita, eztulka hasi zen, egun hartan lehenengo aldiz.

Amak besoetan hartu zuen. Bere neska kuttuna berriro hasiko ote zen asma madarikatuarekin, oxigeno faltarekin, eta ospitalean ingesatu beharko ote zuten?

Sofiak lasaitu zituen. Azaldu zien eztul hura maitagarrien hautsak eragindakoa zela. Seguruenik, zulo hartatik atera zen maitagarri baten hautsa zela, eta jendeari eztula eragiten ziola. Defentsarako

erabiltzen zuten maitagarriek, jendea uxatzeko, haien bizilekuak ez aurkitzeko.

Uxue nekatzen hasia zen, eta Sofiak besoetan hartu zuen.

Anderrek gerritik hartuta xuxurlatzen zion Mireni, ahots urratuarekin:

–Maitagarriaren hautsa, laztana. Non ezkututzen dituzu zure hautsak?

–Kontuz nire hegoekin, jeinu bihurria! Gerritik hartu nauzunean, ia apurtu dizkidazu!

–Zure hauts liluragarriak nahi ditut. –urrumatu zion Anderrek– leun besarkatuz aldaketatik.

–Isildu, beste maitagarriek entzungo dizute-eta; sorginkeriaren bat egingo digute!

Arregi izeneko lursaileraino igo ziren. Handik, Izki basoa haien oinetan geratzen zen, haritzondoak oraindik more eta biluzi.

Zeruertzean, Kantauri mendilerroan bukatzen zen haritzondo eta pagoen Shangri-La.

–Bernedotik zoazela Herrerako mendatea dago, eta, beste aldean, Errioxa. –Sofiak ibilbidea seinalatzen zuen– Une zoragarri batean, badirudi aldapa igo, eta denboraren atea zeharkatzen duzula; bat-batean pagoek eta haritzondoek lekua uzten diete mahastiei.

Neskari begiratu zion, ez zuen ezer ulertzen. Orduan, beste maitagarri batzuek hitz egin zion, mahasti artean bizi ziren haiei buruz: mahatsekin jolastu, eta edabe miragarri bat egiten zuten, zuria batzuetan, besteetan, beltza. Belarrira xuxurlatu zion beste egun batean haiek ezagutzera joango zirela.

Urdin iluna grisarekin nahasten zen zeruan, jaisten hasi zirenean.

–Uxue, begira, zuhaitz hau gaztainondoa da. –Oraindik baziren lurrean morkots batzuk, baina umeak ez zituen hartu nahi izan, ez ziztatzeko.

Enbor batean eseri ziren, eta Sofiak kontatu zien zergatik dituzten arantzak morkotsek.

Anderrek estu hartu zuen berriro Miren gerritik, leuntasunez altxatu zion jertsea praketatik eta eskua sartu zion bizkarretik.


–...basoko aztiak lagundu egin nahi zion gaztainondoari, animaliek fruituak jan ez zitzaizkien, eta arantzak josi zizkien gaztaineri.

Anderren eskuak bide egin zuen Mirenen ezkerreko bularreraino, Mirenen eskua Anderren praketan sartu ahala.

–Eta aztia non bizi da? –Galdetu zuen Uxuek.

–Basoan. Kapa oso handi bat du, estali eta ikusezin bihurtzen duena.

–Gaiztoa al da?



Mirenek Sofiari begiratu zion. Gaua gertu zegoen eta umearen amesgaiztoak gurasoen ohean baino ez ziren baretzen. Gau hartan, ordea, Mirenen eta Anderren begiak amodioz gainezka zeuden.

–Ona da. Izki basoa zaintzen du, baita bertako animaliak eta izakiak ere. –Sofiak bere ingurura begiratu zuen aztiaren bila ari balitz bezala.

Etxera ailegatu ziren.

–Denbora oso azkar pasa zait! –Esan zuen umeak.
–Maitagarri bat zarelako, ez bazenekien ere. Oinen ordez hegoak erabili dituzulako. –Esan zuen Sofiak txantxetan bizkotxo zati bat mozten zion bitartean.
–Luzatuko dituzu zure hegoak nire gainean gero? Nik pagoetatik hartu dudan beste gauza bat emango dizut trukean. –Xuxurlatu zion Anderrek Mireni lepoan.

Mirenek eskuak hartu zizkion eta ez zuen ezer ikusi.

–Zer emango didazu?
–Aztiaren hautsa!

Gauetz itzuli ziren Gasteizera. Bakarrik geratu zenean, urduritu egin zen Sofia.

Logelara joan zen. Arropa kentzen hasi zen, astiro. Kontu handiz kendu zuen jertsea, azala ez urratzeko. Hegoak askatu zituenean, arinago sentitu zen. Leun astindu, eta leihora hurbildu zen.

Gaua sartzen sentitu zuen; ondo ezagutzen zuen basotik zetorren deia.

Gutxi barru hegoak bustiko zizkion lamiaren ahotsa zen.

Eguna egunekoentzat eta gaua gauekoentzat, esan zion Sofiak bere buruari, ohean itzaroten zuen bitartean. ■■■

Hezur-haragizko inizialak



Edu Zelaieta Anta

E.

Montanan jaio eta bizi izan zen nik Gasteizen ezagutu nuen arte. Literatura konparatuen ikasketak Montanako Unibertsitatean egin ondoren, Europa ezagutu nahi zuela erabaki omen zuen E.-k. Horretarako aitzakia on bat behar zuen, bereziki gurasoak konbentzitzeko. Gure artean bolada batez ibili izanak lortu zuela esan nahi du.

Astean bi aldiz gelditzen ginen E. eta biok Frantzia kaleko kafetegi batean. Ederki gogoratzen dut hari entzun niola lehen aldiz hemengo neska batzuek orrazkera estilo propioa zutela. *Basque fringe* delakoa. Gauzak zer diren, baina. Dozena bat urte igarota, hainbat emakume ospetsuk modan jarri omen dute. Eta, E.-k bezala, ingelesez bataiatu dute estilo (ustez) berria, Interneten bolo-bolo dabilen izen globalizatuan euskal erreferentziarik ikusi ez dudana arren.

Literatura eta kafea maite zituen, biak arestian emandako ordena horretan. Eta esango nuke, ez horregatik bakarrik noski, bi gauza horiek ere solaskide ona egiten zutela. Irakurle onek hitz egiten ez ezik, entzuten ere badakitelako.

G.

Oso bestelako egoera batean ezagutu nuen G.: trenean, bakoitza bere bizikleta bagoiko kakotik jaisten ari ginela. Araian geratu ginen biok, nahiz eta asmo ezberdinak genituen bi gurgipilen gainean ibiltzeko. G.-ren kasuan, denbora gutxi zeraman gure artean, Araba ere ezagutu nahi zuen, hiriburutik atera. Beraz, asteburua zela baliatuta, Araiatic Gasteizera bizikletaz joateko asmoa zuen. Nire kasuan, aldiz, Araiara trenez ailegatu eta gero, Eginoraino jarraitu behar nuen, bertako lagun batekin aspaldiko hitzordua jarria nuelako.

G.-k ez zuen halakorik behin ere egina aurretik, hau da, lehen aldian zuen bizikletaz babazorroen probintzian barrena. Era berean, lehen aldian nuen nik autorik hartzen ez nuela Eginora joateko. Gauzak zer diren, baina. Bigarren aldi batean topo egin genuen, orduan ere bakoitza bizikleta bagoiko kakotik jaisten ari zela. Hasierako irribarre urduritxo pare baten ondoren, hizketan hasi ginen Aguraingo geltokian. Nire belarriek berehala berretsi zidaten begiek modu ez hain zuhurrean emana zidaten informazio hura: iparralderagoko latitudeetatik zetorren aurrean nuen ilehoria.

D.

“Badakizu zein den Afrikako hiribururik populatuena”, galdetu zidan D.-k. Eta isiltasunak eman zion nire ezjakintasunaren berri. “Lagos da. Nigerian dago, eta hiri erraldoi horretatik ordu batera dagoen beste leku batean jaioa naiz ni”. Hamar minutu geroago, gu geunden gizarte etxeko komunera joan nintzen, eta egonaldi laburra aprobetxatu nuen bilaketa azkar bat egiteko telefonoan. Bertan aurkitu nuenaren arabera, Lagos ez zen Afrikako hiribururik jendetsuena, Kairo baizik.

Gauzak zer diren, baina. Komunetik bueltan, hauxe bota zidan lagun berriak ezustean: “Wikipedian begiratzen baduzu, agian Kairo agertuko zaizu. Dena den, datu hori ez da zuzena: Lagosen eta haren inguruan hogeit hamar milioi bizilagun inguru daude.”

Biluztua sentitu nintzen une batez. Bai eta lotsatua ere. Wikipediak eskaintzen zuen Afrikako hiriburu populatuena zerrenda horretatik, ia izenen erdia ezezaguna zen niretzat. Gutako nork daki Abidjan-en berri? Atera kalera eta hasi galdezka ea zenbait milioi lagun biltzen dituen Dar es Salaam izeneko hiriak? Mesedez, esango didazue—komunera joan gabe— non dagoen Luanda?

L.

Azken urteotan Hong Kongen *ziklikoki* gertatutako protestak direla-eta izan genuen lehen eztabaida. Nik hango egoeraz gehiago jakin nahian galdetzen nion L.-ri, baina uste dut hark Txinaren kontrako iritzizat hartzen zuela nire jakin-mina. Gure artean hainbat debate izan arren, biok baikara odolbero samarrak, inoiz ez da ezer pertsonala izan. Areago, hasieran suertatutako ika-mika horrek gehiago erakarri gintuen elkarrengana nolabait, bietako zeinek lortuko ote zuen hitzezko borroka irabaztea hurrengo enkontruan. Aitortu beharra daukat sekula ez naizela L.-rekin aspertu, eta hori gauza handia da.

Guangzhou edo Kanton eremuan sortua da bera. Kantoneraz egiten dute haren familian, 120 kilometro ingurura dagoen Hong Kongen bezala. Gauzak zer diren, baina. Txinako gobernuaren zein protesta egiten dutenak kritikatzeko dituzte L.-k, ahoan bizirik gabe.

Harekin izandako azken eztabaida Zeledonon gainekoa izan zen. Hasieran, kurioa eta sinpatikoa iruditzen zitzaion panpina botatzearena. Geroago, norbaitek azaldu ostean jatorrizko Zeledon nor izan zen, galdezka hasi zitzaidan egun batean. Haren hitzetan, jakin-minetik.

Hezur-haragizko inzialak

Ez naiz ausartu izen osoak ematera. Euskaraz idatzita dauden lerro hauek gero eta ulergarriagoak dira Araba izeneko lurralde honetan bizi garenontzat. Horregatik erabaki dut inzialak baliatzea. Egin kontu: hezur-haragizko inzial bakoitzaren atzetik biografia bat dago, besteak beste, noizbait Arabako bazterrak zapaldu eta euskararen herria ezagutu nahi izan duen pertsona batena. Izan ere, une jakin batean bizitzan bidaide izan ditudan E., G., D. eta L. euskara ikasten aritu dira, dagoeneko hain berria ez den XXI. mende honetan. Haietako bakarra bizi da gure artean orain, Mendialdeko herri batean (xehetasun gehiagorik ez ematea ulertuko duzue). Beste hirurek, gurekin urte batzuk egin eta gero, haien bidean jarraitu dute: Kanadara, Alemaniara eta Txinara. Ustez, bertan finkatuko dute euren bizi-proiektua.

Gaurko munduko nomada berriak direla esan dit D.-k, harekin Skype bidez izandako azken elkarrizketan. Jatorri kulturala gorabehera, taldeka mugitu beharrean banaka mugitzen diren nomadak omen dira.

“Someone should write about that, lagun maitea”. ■■■



Euskarak lotzen gaitu,
elkartu, anaitu,
gertutasuna sortu,
tarteak amaitu
izan nahi dugun hura
izateko gaitu
euskaraz egiteak
hori lotzen baitu
konpartitzen dugunak
aberasten gaitu.



EUSKARAZ ERE,
NATURALTASUNEZ